

LUMA BERRIEN AZTARNAK
MATTANE RODRIGUEZ



Ilustrazioa **Kristina Fernandez**

hutsa

Mattane Rodriguez

Lesaka (Nafarroa). Idazle eskolako 2.mailako ikaslea. Historian lizentziatua eta Bigarren Hezkuntzako irakaslea da Nafarroan.

Mattane Rodriguez

Sugeak lurpean

Metroan noa goizeko zortzietan, lur azpiko suge luzean. Goiko aldean, zerua urdin eta eguzkia indartzen utzi ditut suge luzeraino naramaten eskailerak jaitsi ditudanean.

Azpialde horretan, ez da ez eguna ez arratsa existitzen. Ez dago txorien kantuekin argitzen den egunsenti gorri ez eta xaguxarrak agertzen diren ilunabar arroxarik. Beti beroa, presa, frenatze kirrinkagarria eta ordenagailu teklek bultzaturiko abiatzea.

Benetton denda-katearen iragarkia egin zitekeen bagoian gaudenok: bakoitzak bere azal kolorea, amets eta helmuga bana. Begien forma anitzak eta iris kolore gama zabala; irisaren ondoko xuria, hori, denok iguala daukagu, ordea.

Batzuek ez dute gosaltzeko astirik izan eta plastikozko ontzietan daramate tea, kafesnea edo auskalo zer nahaskeria. Bertze batzuk oraindik lo daude ondoko bidaiariaren sorbalдан almoada bilatzen. Egunkari, *best-seller* nobela, poesia liburua ere esku nahiz motxiletan. Norbait beretzat bakarrik den musika aditzen ari da.

Keelen jende tropel berri bat sartu da bagoian eta abiatzear ginela, atea itxi aitzinetik sartu da emakume ilegorri bat. Ie luzea du, kiribildua eta irlandar gorrikoa. Irlandar jatorria izan beharrean, akaso arbaso agoten bat ere izan lezake. Azala argi-argia, milaka peka ttikiz tatuatua. Eserlekurik libre ez duenez, xutik gelditu behar izan da eta helduleku bila hasi da.

Bat-batean argiak itzali eta konfeta diruditen kolorezko argiak piztuko balira, heldulekua amerikar barra izan liteke. Foku argi batek barra hori argitu eta dantzaria noiz agertuko zain geldituko litzateke publikoa, batzuk txistuka, txaloka bertzeak. Emakumezkoen gorputzaren kontura dirutza mugitzen duen negozio higuinargia.

Ilegorriak, ordea, ez du *stripteasea* egiteko intentziorik eta heldulekuari kontzen dio, indarrez, fuerte, bagoiaren mugit-

mentuak desoreka sortzen diolako eta inguruko inor ez ukitzeko ahalegina edo egiten du, tentsioan mantentzen da. Eskuineko esku horretan, larruzko eskularrua du jantzita. Agian bakterioen beldur da eta ez du aitzinetik egon denaren aztarna gardena (baina *staphylococcusez* josia) bere eskuetan itseki nahi.

Bertze eskua, aldiz, biluzik dauka, eskularrurik gabe aske eta segituan atera du sakelatik arrosario luzea; puntan zilarrakoa dirudien gurutze zorrotzarekin. Berdin zaio bagoia bete-betea egotea, bagoian goazenok atun latak haragia gisan estu egotea, bera, errezoan hasi baita. Begiak erdizka itxi eta ahoa *playbacka* egiten duten kantari bezala mugitzen du eta pentsatu dut agian gu denon, suge luzean goazenon salbazioagatik (halakorik existitzen bada) ariko dela, igual.

Agian, klaustrofobia sentituko du eta lanerako bide luzea metroan egin behar duen goizetan nik ez dakidan denbora itogarria sufritu beharko du lur azpiko sugean doan bitartean. Igual, lur azpiko sugea erlijio-fanatiko batek lehertu eta lurraralera jaurtiko duen ikara da. Edo baliteke, bere semeaz oroitzea. Tren istripuan hil zitzaion semeaz, gorputegian identifikatu behar izan zuenaz, hatz erakuslea falta zuela lurperatu edo erraustu behar izan zutenaz. Sabel-zintzurrean suge luzeak iraganeko arantzak zorrotzen dizkiola dirudi.

Arriving to Spadina. Ardia naiz presaka doan artaldearen erdian; atera gara behingoz suge luzetik eta zeru urdina eta eguzkia bistaratzea ditut helburu. Spadinako geltokian ere inoiz ez da ez egun, ez arrats. Ez egunsenti gorri, ez ilunabar arroxarik.

Nasatik bilatu ditut bagoian gelditu diren emakume ilegorria, larruzko eskularrua eta zilarrakoa arrosarioa. Bere errezo ixila ere badoa. Suge luzearen barruan urruntzen doazela, emakume ilegorriak esku biluzia ahora eramane duela ikusi dut; gurutze zorrotzak hatz erakuslea ebaki diola dirudi.